

GIG 42

DEBAREN ESTUARIOA

BALIO INTRINTSEKOA: 2

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,75

KALTEBERATASUN-MAILA: 3

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Geoparkean bi estuario baizik ez daude –bata, Zumaiakoa (GIG 31), eta bestea, Deba ibaiarena–, eta balio berezia dute horregatik, altxor moduko bat baitira bertako sedimentuak: Holozenoan zehar (10.000 urtean) itsas mailan nahiz kliman gertatutako aldaketei buruzko informazioa duten altxor bikainak.

Estuarioko hondakin sedimentarioak Debako herrigunetik hasi eta ia Sasiolako meandro ahokaturara bitartean daude kontzentratuta. 30 metroko zundaketa baten azterketa sedimentologiko eta paleontologikoak eremu hori sedimentuz betez joan zeneko sekuentzia bat erakusten du, eta sekuentzia horretan garbi ikusten da Holozenoan zehar itsasoaren eragina apurka-apurka gutxituz joan zela. Erregistro hori bat dator inguruak izandako bilakaerarekin, horixe izan baitzuen bereizgarri: azken glaziaziotik aurrera (20.000 urte) itsas mailak gora egin izana, alegia. Horrenbestez, glaziazioan Deba ibaia ahokatzeak sortutako lekua betetzen ari da estuarioa; garai hartan, gaur egungo estuarioa baino 30 metro beherago zegoen, gutxienez.

Lekua leheneratzeko lan handia egin den arren, gehienetan gertatzen den bezala Debaren estuarioa ere oso hondatuta eta antropizatuta dago.

NOLA BERTARATU

Debako herrigunetik oinez, horretarako egokitutako bidean zehar.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Estuarioaren ikuspegi orokorra, Errotazarko erribera aldean.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 551574 m / Y= 4793454 m / Alt.= 3 m



Leheneratutako eremuaren zati bat.